

Adikzioei buruzko kanpaina eraikuntzaren sektorerako

Adikzioei buruzko kanpaina eraikuntzaren sektorerako



Barakaldo, 2023

Lan honen bibliografia-erregistroa Osalaneko Liburutegiaren katalogoan aurki daitezke:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca de Osalan:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024

A catalogue record of this book is available in the catalogue of the Library of Osalan:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024

- Izenburua:** Campaña sobre adicciones en el sector de la construcción / Adikzioei buruzko kanpaina eraikuntzaren sektorerako.
- Argitaraldia:** 1.a. 2023ko abendua.
- Ale-Kopurua:** 50 ale .
- Egileak:** Robertson Sangrador, Maite (OSALAN), Martín Díez, María Jesús (OSALAN), Zubía Ortiz de Guinea, Ana Rosa (OSALAN), Gómez Echevarria, M.^a Teresa (OSALAN).
- ©:** Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
OSALAN- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea /OSALAN- Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales.
- Argitaratzailea:** OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales / Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea
Dinamita Bidea z.g. -48903 Barakaldo (Bizkaia).
- Internet:** www.osalan.euskadi.eus
- Fotokonposizioa eta inprimaketa:** Fotocomposición IPAR, S. Coop.
Zurbaran Kalea 2, 4- behe. 48007 Bilbao (Bizkaia).
- Lege-gordailua:** LG BI 1569-2023

Aurkezpena

Lan-kontratuko biztanleetan egindako hainbat azterlanek agerian uzten dute droga-kontsumitzaileek ondorio negatiboak izaten dituztela beren kontsumoaren ondorioz: alkohola edaten dutenek istripu gehiago izaten dituzte lanean beste langile batzuek baino; kalamua edo kokaina erabiltzeak eragin negatiboa du arreta eta kontzentrazioa eskatzen duten zereginak egiteko gaitasunean, eta, beraz, istripuen arriskua areagotzen du, eta, jakina, baita laneko absentismoa ere, eta beste ondorio batzuk ere badakartza. Beraz, garrantzitsua da erakundeek adikzioak prebenitzeko plan bat garatzea, eta plan horrek izan ditzakeen ondorio negatiboak jasotzea, bai enpresatik kanpoko faktoreek eragindakoak, bai lan-faktoreek edo biek eragindakoak.

Esparru horretan, OSALANek eraikuntza-sektoreko adikzioei buruzko inkesta bat egin du, jakinda sektore horrek duela tabakoa eta alkohola kontsumitzeko arrisku-indize handiena, kokainaren kontsumoan bigarrena eta kalamuaren hirugarren indizea. Inkestaren helburua zen jakitea nola ezarri diren adikzioak prebenitzeko planak eraikuntzaren sektorean Euskal Autonomia Erkidegoan, kontsumoak murrizteko eta horiek lanean dituzten ondorio negatiboak saihesteko. Ezinbesteko urratsa da, batetik, eremu horretan egon daitezkeen gabeziak detektatu ahal izateko, eta, bestetik, enplegatzaileei lagunduko dieten lerro zuzentzaileak proposatu ahal izateko, Lanaren Nazioarteko Erakundeak dioen bezala, «lantokian segurtasun- eta osasun-baldintza onak bermatzeko eta neurri egokiak hartzeko, lantokian alkoholaren eta drogen arloko politika globala barne, istripuak prebenitzeko eta langileen osasuna babesteko».

Argitalpen honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) enpresetan Adikzioak Prebenitzeko Plan bat egitea eta ezartzea gomendatzen duten inkesta honen emaitzak jasotzen ditugu, egiazta daitekeen bezala. Bereziki, eraikuntzako bezalako sektoreetako enpresetan, eta hainbat ekintza egitea gomendatzen dugu. Besteak beste, adikzioei buruzko prestakuntza espezifiko eskaintzea adikzioen prebentzio-plana garatzeko ardura duten pertso-



nei eta langile guztiei, erakundeetan arazo hori modu egokian kudeatu ahal izateko. Izan ere, zalantzarik gabe eta beti bezala, langileen eta haien ordezkarien parte-hartzea eta konpromisoa ezinbesteko baldintza da emaitza onak lortzeko.

Lourdes Iscar Reina

OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusia

Aurkibidea

1. Sarrera	9
Laneko faktoreak	12
2. Justifikazioa	14
3. Helburua	16
4. Materiala eta metodoak	17
5. Emaitzen azterketa	20
5.1 Bisita kopurua, guztira	20
5.2 Plantillaren ezaugarriak	20
5.3 Adikzioen prebentziorako plana izatea	21
5.4 Adikzioekin zerikusia duten beste ekintza batzuk	22
5.5 Jakitea ea enpresak zenbaterainoko ezagutzen duen adikzio-arazoak dituzten langileen berri.	22
5.6 Enpresan azken 5 urteetan gertatu diren eta adikzio-arazoekin lotura izan dezaketen gatazka-egoerak, laneko istripuak edo gorabeherak jasorik uztea	23
5.7 Parte-hartzea eta ordezkaritza	23
5.8 Prebentzio modalitatea	24
5.9 Laneko arriskuen prebentzioaren alorreko dokumentazioa	24
5.10 Adikzioei buruzko prestakuntza espezifikoa izatea	25



6. Ondorioak	26
7. Lanerako proposamena	29
8. Bibliografia	30
Eranskina. Lantokietan adikzioei buruz egindako inkesta	32

1. Sarrera

Lantokian osasuna sustatzea eraginkorra izan dadin, LANE Lanaren Nazioarteko Erakundearen arabera, zeregin horrek laneko segurtasun- eta osasunneurrien osagarri izan behar du, laneko arriskuen prebentzioa kudeatzeko jardunbideetan txertatuta, eta lagundu behar du gizonen eta emakumeen osasuna eta ongizatea babesten lanean¹. LANE Lanaren Nazioarteko Erakundeak berak ohartarazi du substantzien abusuak lanean duen eragin handiaz^{2,3}. Horregatik, beharrezkoa da enpresa barruan adikzioei aurrea hartzeko esku-hartzeak ezartzea.

Estatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan badira zenbait informazio-sistema datuak biltzen dituztenak bai substantzien kontsumoarekin zerikusia duten alderdiei buruz, bai mendekotasun-sortzaile izan daitezkeen portaerariohiturei buruz. Sistema horiek informazioa eskaintzen dute kontsumoaren prebalentziaz, kontsumoek denboran zehar duten eboluzioaz eta abarrez, zenbait aldagai soziodemografiko oinarritzat harturik.

Langileen artean egindako azterlanek erakusten dutenez, drogak kontsumitzen dituzten langileen % 23-31k ondorio negatiboak jasan dituzte euren kontsumoak direla medio, eta ondorio horien % 13-15 lan-arlokoak izan dira⁴. Lan-esparruan hauek dira adikzioen ondorioak: laneko istripuen (LI) kopuru handiagoa (laneko istripuen % 20-25eko gehikuntza dago lotuta kontsumoekin), absentismo-tasa handiagoa, tirabirak lanean, errendimendu kaskarra lanean...⁴.

Espanian kalkulatu da laneko istripuen % 5-25 bitarte gertatzen direla alkoholarekin zerikusia duten arazoen ondorioz. Alkohola edaten dutenek lanean hiru aldiz istripu gehiago izaten dituzte beste langileek baino, eta gaitasunagatik askoz lanegun gehiago galtzen dituzte. Kalamuaren erabilerak kalte egiten dio arreta eta kontzentrazioa behar dituzten zereginak gauzatzeko gaitasunari, eta laneko istripuen arriskua areagotzen du. Kokaina kontsumitzen duten pertsona askok arazoak izan ohi dituzte, bai arreta eta kon-



tzentrazioa eskatzen dituzten zereginetan zein laneko absentismoagatik eta beste ondorio batzuegatik. Estimulazaileak erabiltzeak lanean edo errepi-dean istripuak izateko arriskua handitzen du⁵.

Populazio orokorraren eta langile populazioaren arteko aldeei dagokienez, alkohola eta tabakoa kontsumitzen dituzten pertsonen ehunekoa handiagoa da langile populazioan, baina hipnosedatzaileena handiagoa da populazio orokorrean⁵.

Alkohol-kontsumoa

Alkohola da Espainian gehien kontsumitzen den legezko droga. Eboluzioari erreparatuta, langile populazioaren % 9,6k kontsumitzen du alkohola egunero. Beheranzko joera leuna nabari da (2007an % 11, 2013an % 10,5 eta 2019an % 9,6)⁶. Hona alkohola egunero kontsumitzen duen pertsonaren profila: gizonezkoa, 45 urtetik gorakoa, heziketa-maila apalekoa. Kontsumo arriskutsua egiten dutenak, ordea, 25 urtetik beherako gizon ezkongabeak dira, ikasketarik gabekoak edo lehen mailako ikasketak dituztenak⁶.

Eguneroko alkohol-kontsumoaren prebalentzia handienak eraikuntzaren eta nekazaritza, arrantza, abeltzaintza eta erauzketaren sektoreetan dituzte⁶.

Alkoholaren kontsumo kaltegarriari egotzi ahal zaion gaixotasun- eta heriotza-kargaren zati garrantzitsu bat dagokie traumatismoei, nahita eraginda-koak izan zein ez; bereziki, joan-etorrietako istripuei, indarkeriazko ekintzei eta suizidioei². Alkohol gehiegi kontsumitzea, gainera, faktore erabakigarria da familia- eta genero-indarkeriaren gertakarietan nahiz lan- eta zirkulazio-istripuetan^{2,3}.

Alkoholarekin zerikusia duten gorabehera guztietatik (istripuak, liskarrak, absentismoa eta abar), kalkulatu da % 54 ere egotzi ahal zaizkiela «neurritzko edaleei», eta guztizko kopuruaren % 87, berriz, «edale neurritzko-moderatuei»⁷.

Kalamu-kontsumoa

Kalamua da Espainian legez kanpoko droga hedatuena. Eboluzioari erreparatuta, 2013az geroztik kontsumoaren goranzko joera nabari da. Serie historikoko baliorik handiena (35,2%) 2017koa da, eta ehuneko 3,7 puntuko aldea ateratzen dio 2015ean lortutako datuari. Nabaritzen da hazi egin dela 35 urtetik gorako kontsumitzaileen ehunekoa: 2008an kontsumitzaileen populazio osoaren % 26,1 ziren eta 2017rako % 40,6 izatera igaro dira. Horrek

zerikusia du kalamua kontsumitzen duten pertsonak zahartzearekin. Ikasketamailari dagokionez, 2008tik aurrera pixkanaka igo da ikasketarik ez duten edo lehen mailako ikasketak dituzten kontsumitzaileen proportzioa. Izan ere, populazio kontsumitzaile osoaren % 6,3 izatetik 2017an % 27,5 izatera pasatu ziren⁵.

Tabako-kontsumoa

Tabakoa da Espainian gehien kontsumitzen den bigarren substantzia psiokoaktiboa. Espainiako biztanleen % 69,7k adierazi dute bizitzan inoiz tabakoa erre dutela⁵. Hala ere, 2008an hasitako joerari eutsiz, tabako-kontsumoaren prebalentzia orokorrak beherantz doaz. Gainera, garrantzitsua da azpimarratzea EAEn 2017an inkesta serie osoko prebalentzia txikienak izan zituztela, kontsumoei dagokienez, bai emakumeek zein gizonek³. Gizonek, hala ere, emakumeek baino proportzio handiagoan erretzen dute. Gizonek, gainera, zenbat eta ikasketa-maila apalagoa izan hainbat eta tabako gehiago kontsumitzen dute eta gehiago kostatzen zaie erretzeari uztea. Eredu hori alderantzizkoa da emakumeetan: zenbat eta ikasketa-maila apalagoa izan, hainbat eta handiagoa da inoiz tabakorik kontsumitu ez duten emakumeen proportzioa⁵.

Bilakaeran, ehuneko 2,8 puntuko jaitsiera dago 2015eko datuaren aldean, eta, 2007tik lehenengo aldiz, % 70etik beherakoa da *bizitzan noiz edo noiz* kontsumitu izanaren prebalentzia⁵.

Egunero erretzen duten pertsonen prebalentzia handieneko jarduera-sekto-reak eraikuntza eta ostalaritza dira⁶.

Hipnosedatzaileen kontsumoa, errezetarekin edo errezetarik gabe

Substantzia hauek *bizitzan noiz edo noiz* kontsumitu izanaren prebalentzia % 20,8koa da, eta ehuneko 2,1 puntu egin du gora 2015eko datuarekin alderatuta; une hartan moteltze historikoa gertatu zen substantzia honek 2009tik izandako goranzko joeran. Nolanahi ere, ordura arte ikusitako goranzko joerak moderazioari eusten dio⁵.

Ereduzko kontsumitzailea 45-64 urte bitarteko emakumea da, hezkuntza-maila apalekoa, eta egoera zibil hauetako bat duena: banandua, dibortziatua edo alarguna. Halaber, hipnosedatzaileen kontsumo handiagoa dute esku-langile ez kualifikatuek, administrariak eta jatetxe-arloko zerbitzuetan, zerbitzu pertsonaletan, babes-arloan eta salmentan lan egiten dutenek. Nekazaritza, arrantza, abeltzaintza eta erauzketa dira kontsumitzaileen proportzio



handiena duten sektoreak, eta, ondoren, administrazioa, etxeko jarduerak eta zerbitzu pertsonalak⁶.

Kokaina-hautsaren kontsumoa

Kalamuaren ondoren, Espainian gehien kontsumitzen den legez kanpoko droga da. 15-64 urte bitarteko biztanleen % 10,0k aitortu dute *bizitzan noiz edo noiz* kontsumitu izana, eta adierazle horrek ehuneko 1,1 puntuko igoera izan du 2015ean izandakoaren aldean⁵.

Kokainaren ereduzko kontsumitzailea gizonezkoa da, 35 urtetik beherakoa, ezkongabea eta hezkuntza-maila apalekoa. Eraikuntzan eta arte-, jolas- eta kirol-jardueren sektoreetan bilduta dago kokaina kontsumitzen duten pertsonen portzentajerik handiena⁶.

Portaera-adikzioak: joko patologikoa, Interneten eta sare sozialen abusua, sexuaren, erosketen edo lanaren adikzioa

XX. mendearen amaieran garrantzia hartzen hasi zen adikzio mota berri bat, zeinak, alkoholaren, tabakoaren edo beste droga sintetiko batzuen adikzioa ez bezala –substantzia batekiko mendekotasunean oinarritua bera–, jarduera edo portaera batekiko mendekotasuna baitzuen ezaugarri. Portaera-adikzioen multzoan sartzen dira, funtsean, joko patologikoa, Interneten eta sare sozialen abusua eta erosketen, sexuaren edo lanaren adikzioa³.

Euskal Autonomia Erkidegoan 400.000 bat pertsona (biztanleen % 26,3) jo daitezke jokozale aktibotzat. Horietatik % 9,8k nola edo halako arriskua dute. Jokozale aktiboen proportzioa txikiagoa izan arren gazteen artean, biztanleriaren segmentu horrek portaera arriskutsuagoa agertzen du. Euskal Autonomia Erkidegoan, biztanleen % 5 inguruk egiten omen du Interneten erabilera arriskutsuren bat (arazoak eragiten dituen erabilera, kasu batzuetan). Portaera-adikzioetan hautematen den arriskua txikiagoa da egunero pakete bat tabako kontsumitzearena, alkohol-kontsumo intentsiboarena edo hileroko kokaina-kontsumoarena baino³.

Laneko faktoreak

Enplegu-baldintzei eta lan-baldintzei lotutako faktoreek ere eragina izan dezakete kontsumo-ohituretan eta kontsumoaren aldaketetan. Hala, kontsumoaren prebalentzia handiagoarekin lotu izan dira gaueko txandak dituzten lanaldiak, lanaldi irregularrak eta asteburuetakoa⁸. Baliteke langile batzuek

tabakoaren eragin estimulatzailea bilatzea lanaldi luzeak eta ziklo zirkadianoen aldaketak jasateko. Gainera, zailagoa izaten da halakoek tabakoari uzteko programetara jotzea.

Enpresaren esparruan adikzioen prebentzioaren arloko esku-hartzeak justifikatzen dituzten arrazoiek oinarri hauek dituzte: kontsumoaren prebalentziak, denboran zeharreko etenik gabeko esku-hartzea bermatu ahal zaion xede-populazio bat egotea, langileek ordutegi berarekin lantokietan elkarrekin ematen dituzten orduen kopurua, eta prebentzioan parte hartzen duten agenteen prestasuna.

LANEren arabera: «Enplegatzaileek segurtasun- eta osasun-baldintza egokiak bermatu behar dituzte lantokian. Horretarako neurri egokiak hartu behar dituzte, lantokiko alkoholaren eta drogen arloko politika globala barne, istripuak prebenitzeko eta langileen osasuna babesteko»⁹.

2. Justifikazioa

2013ko *EDADES* inkestan (Alkoholari eta beste droga batzuei buruzko Espainiako inkesta) adierazten denez, eraikuntzaren sektorean dago tabako- eta alkohol-kontsumoaren arrisku-indize handiena, kokaina-kontsumoaren bigarrena eta kalamuaren hirugarrena⁵.

Eraikuntzaren sektoreko lan-baldintzak kontsumoen arriskua areagotzen duten faktoreak izan daitezke, eskakizun espezifikoak direla-eta: zeregin arriskutsuak, zeru zabalean lan egitea, muturreko tenperaturan (beroa edo hotza), oso errendimendu handia eskatzen duten lanak, lan-baldintzen ziurtasunik eza. Sektore horretan adikzioak sustatzen dituzten faktoreen artean hauek azpimarra daitezke: faktore psikosozialak, tartean lan-denbora (lanaldi luzeak, lan-karga gutxikoaldiak, etxetik kanpo luzaroan egotea); lanaren edukia (zeregin desatseginak, lan gutxietsia); lanbide-garapen urria, eta abar.

Garrantzitsua da erakundeek adikzioen prebentziorako plana garatzea eta bertan aintzat hartzea mendekotasunen eragin kaltegarri posibleak, direla enpresaz kanpoko eragileek sortutakoak, direla lan-esparruko eragileen ondoriozkoak, direla bietarikoak. Mendekotasunak prebenitzeko politikak eta ohitura osasungarriak sustatzekoak prebentzio kolektiboko neurrietan zehaztuko dira; haien xedea izango da mendekotasunak saihestea, murriztea edo ezabatzea erakundeen barruan¹⁰.

Enpresa batek adikzioen prebentziorako plana ezarri nahi duenean, kontuan izan behar du **PLANTILLA OSOARENTZAT** izango dela. Adikzioen prebentziorako plan guztiek lehen mailako, bigarren mailako eta hirugarren mailako prebentziorako ekintzak biltzen dituzte. Lehen mailako prebentziorako ekintzen bitartez, adikzio arriskutsurik gabeko pertsonak hala irauten dezaten edo ohitura horiei euts diezaieten lortu behar da. Bigarren mailako prebentzioaren helburua izango da kontsumo arriskutsuak eta/edo adikzio-portaerak dituzten pertsonak lehenbailehen detektatzea, egoerari behar bezala

heltzeko. Azkenik, jarduketa-protokoloak garatuko dira lana egokitzeko eta gaixo dauden pertsonak lanera itzultzeko, hirugarren mailako prebentzio gisa.

Eraikuntzaren sektoreko kontsumoen prebalentzia eta berezitasuna direla-eta, OSALANek garrantzitsutzat jotzen du «*Enpresetan drogamendekotasunen prebentziorako planak ezartzeko gidaliburua*» (2014) argitalpeneko gomendioak sektore honetara ekartzea, erabil daitezen sustatzea eta, horrenbestez, prebentzioaren bitartez portaera horiek murriztu edo ezabatzea.

3. Helburua

Helburu orokorra

Jakitea nola ezarri diren adikzioen prebentziorako planak Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) eraikuntzaren sektorean kontsumoak murrizteko eta horiek lanean izaten dituzten ondorio negatiboak saihesteko.

Bigarren mailako helburuak

- Adikzioen gaia jorratzearekin zerikusia duten beste ekintza batzuen berri jakitea.
- Jakitea ea enpresek zenbaterainoko ezagutzen duten adikzio-arazoak dituzten langileen berri.
- Jakitea ea enpresetan berariazko prestakuntzarik ematen den adikzioei buruz.
- Jakitea ea langileen ordezkariak adikzioen prebentzioaren plangintzan parte hartzen ote duten enpresan.
- Enpresak hautatutako prebentzio modalitateak eta arrisku psikosozialei buruzko prebentzio-jarduerak elkarrekin zer lotura duten baloratzea.
- Bisitatutako lantokietan adikzioei ikuspegi psikosozialetik nola heltzen zaien jakitea.

4. Materiala eta metodoak

Zeharkako azterlan deskribatzailea.

Aztertutako populazioa

Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzako enpresak (EJSN: 41, 42 eta 43), 2017ko abenduan 10 langile baino gehiago zituztenak. QCVAS fitxategiko datuak (Gizarte Segurantzako afiliatuak, laneko istripu eta gaixotasun profesionalen kontingentzietarako estaldura dutenak eta halakorik gabekoak).

Sektorean enpresa txiki asko daude, bulego egonkorrik gabekoak eta, beraz, kudeaketarako egitura finkorik gabekoak. Kalkulatu zen 10 langile edo gehiago dituzten enpresek bakarrik egin dezaketela kudeaketa mota hau.

Bereizi ziren egoitza nagusia EAEn dutenak (n=691) eta EAEn kokatuta egon arren egoitza nagusia EAetik kanpo dutenak (n=54).

Enpresak, guztira: 745

Lagina

Landa-lanerako epeek eta baliabideek baldintzatu zuten laginaren tamaina. Gehienez ere 72 enpresa bisitatuko zirela ezarri zen.

- 100 langile baino gehiagokoak: aztertutako populazioan sartutako guztiak (n=24)
 - Egoitza nagusia EAEn duten enpresak (n=21)
 - Egoitza nagusia EAetik kanpo duten enpresak (n=3)
- 100 langile baino gutxiagokoak:



- Egoitza nagusia EAEn duten enpresak (n=44), tamainaren eta EJSNaren arabera geruzatuta
- Egoitza nagusia EAetik kanpo duten enpresak (n=3), tamainaren eta EJSNaren arabera geruzatu gabe

Guztira 71 enpresako lagina lortu zen

100 langile baino gutxiagoko enpresak ausaz hautatu ziren, enpresaren helbi-dearen letraren arabera, IFKren zenbakien kokalekuaren arabera eta enpresaren izenaren hizkien kokalekuaren arabera.

Galde-sorta

Inkestako galde-sortak (eranskin gisa batu da) bederatzi datu multzo zituen, alegia: bisitaren datuak, enpresaren datuak, prebentzioa antolatzeke modalitatea, laneko arriskuen prebentzioaren arloko dokumentazioa, arriskuen ebaluazioa, arrisku psikosozialen ebaluazioa, adikzioen gaineko jarduketak, prestakuntza eta adikzioei buruzko informazioa. Adikzioen zortzigarren multzo espezifikoan, bazituen gai hauei buruzko zenbait item: adikzioen prebentziorako plana enpresan; beste planteamendu batzuk, adikzioen prebentziorako planik ezean; kontsumoak izatearen ondoriozko arazoak.

Galde-sorta bana eman zitzaion enpresei aurrez aurreko bisitetan. Proiektuari esleitutako lau pertsonetatik batek egin zuen bisita bakoitza. Bisitak 2018ko maiatzean hasi ziren eta 2019ko lehenengo hiruhilekoan amaitu.

Bisita egin aurretik, OSALANeko zuzendaritzak sinatutako gutun bana bidali zitzaion hautatutako 745 enpresei. Bertan proiektuaren berri eman eta parte har zezatela eskatu zitzaion. Bisitaren egunean zer dokumentazio eduki behar zuten eskura adierazi zitzaion, bai eta zein pertsonak agertu behar zuten ere. Honako gai hauen gaineko dokumentazioa aztertuko zela jakinarazi zen: prebentzioaren antolaketa, prebentzio-plana, arrisku psikosozialen ebaluazioa, prebentzioaren plangintza, adikzioei heltzeko jarduketa-protokoloak, langileen prestakuntza, eta bestelako dokumentazioa, 1/2016 Legea, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa xedapenak betetzeari buruzkoa.

Gero, bisita egin behar zuten langileak telefonoz harremanetan jarri ziren enpresekin, bisita noiz egin adosteko. Gogorarazi zieten bisitan langileen datuak eman beharko zituztela, adinaren eta sexuaren arabera bereizita, eta

aurretik bidali zitzaien gutunean aipatutako dokumentazioa eskura eduki beharko zutela. Gogorarazi zitzaien garrantzitsua zela prebentzioko delegatuak edo langileen ordezkariak aurrean egotea, bai eta prebentzio-zerbitzuko langileak ere.

5. Emaitzen azterketa

5.1. Bisita kopurua, guztira

70 bisita egin ziren Euskal Autonomia Erkidego osoan.

Hautatutako lagineko enpresa bati ezin izan zitzaion bisitarik egin jarduera utzi zuelako, eta ez zegoen beste enpresa baten daturik.

Bisiten banaketa lurralde historikoaren arabera:

- 13 enpresa Araban.
- 16 enpresa Gipuzkoan.
- 41 enpresa Bizkaian.

5.2. Plantillaren ezaugarriak

Bisitatutako enpresetako langileak 5.495 ziren, guztira. Sexuaren eta adinaren arabera bereizitako datuak jaso ziren enpresetatik 67tan, eta 4.365 pertsonari zegozkien, horietatik % 89 gizonezkoak eta % 11 emakumezkoak.

	16-24 URTE	25-34 URTE	35-44 URTE	45-54 URTE	55-64 URTE
EMAKUMEAK	6	85	214	101	30
GIZONAK	62	425	2048	1049	538
Plantilla osoaren gaineko ehunekoa	16-24 URTE	25-34 URTE	35-44 URTE	45-54 URTE	55-64 URTE
EMAKUMEAK	% 0,13	% 1,86	% 4,70	% 2,22	% 0,66
GIZONAK	% 1,36	% 9,32	% 44,93	% 23,01	% 11,80
GUZTIRA	% 1,49	% 11,18	% 49,63	% 25,23	% 12,46

Langile finkoek plantillen % 66,23 osatzen dute. Emakumeen kolektibotik, % 81ek kontratu finkoa daukate eta lanpostu teknikoetan eta administrazio-koetan dihardute; enpresa bakar batean ere ez dute obrako eskuzko lanik egi-ten. Gizonen artean, % 58,63k kontratu finkoa daukate eta gehienbat obrako eskuzko lanetan dihardute.

Datu horiek populazio guztiz maskulinizatu bat deskribatzen digute, adinaren araberrako banaketan 35-54 urteen artean kokatua, batez ere.

5.3. Adikzioen prebentziorako plana izatea

- Adikzioen prebentziorako plana izatea

3 enpresak (% 4,29) adierazi zuten bazutela enpresan adikzioen prebentziorako plana.

Adikzioei aurre egiteko plan hori ez zen langileen ordezkariekin adostu ez itundu 3 enpresa horietako batean ere.

Enpresetako bik bazuten arrisku psikosozialen ebaluazioa, eta batek ez.

Enpresetako batean, gainera, bazuten intoxikazio akutuei aurre egiteko jarduketa-dokumentu bat.

- Adikzioen prebentziorako planik ez izatea

67 enpresak (% 95,71) ez zuten adikzioen prebentziorako planik.



Haietatik 9k adierazi zuten bazeukatela planteatuta enpresan adikzioen gaia lantzeko beharra. Horietatik 6tan enpresaren zuzendaritzak planteatu zuen gaia, eta beste 3 enpresetan langileen ordezkariak planteatu zuten.

- Adikzioen prebentziorako plana eduki beharra planteatzeko adierazitako arrazoiak:
 - Enpresaren irudiaren garrantziaz jabetzea. Drogarik gabeko enpresatzat agertzearen garrantzia.
 - Enpresan aurretik izandako arazoak.
 - Prebentzio-zerbitzuak gaia planteatzea, kontsumoa zabaldua dagoela susmatuta, eta enpresak ez jakitea nola heldu.
 - Bezero diren enpresek eskatzea (adibidez, enpresa kimikoetan edo zentral elektrikoetan kontrata bidez zerbitzuak emateko).

5.4. Adikzioekin zerikusia duten beste ekintza batzuk

24 enpresak (% 35,82) drogak kontsumitzea eta edukitzea berariaz debekaturik zeukaten euren segurtasun-planean. Haietako batek ez drogarik ez alkoholik ez kontsumitzeko konpromisoa sinarazten zien langileei lan-kontratuan.

Oro har, enpresek ez zuten jarduketa-prozedura sistematizaturik, eta, beraz, ekintzak banakakoak eta askotarikoak ziren: lanean kontsumitzearen arriskuei buruzko ahozko informazioa, kartelen bidezko zabalkundea, prestakuntzarako bideoa edo mezua, tabako-kontsumoaren debekua.

Bost enpresak (% 7,76) adierazi zuten kontsumoaren susmoa izan zuten kasuetan zerbait egin zutela, baina ez modu sistematizatuan: inhibizioa, zehapena, kaleratzea, lanpostuz aldatzea, laguntzaren esparrura bideratzea...

5.5. Jakitea ea enpresak zenbaterainoko ezagutzen duen adikzio-arazoak dituzten langileen berri

- Hamaika enpresak (% 15,71) adierazi zuten ezagutzen zituztela adikzioen arazoak zituzten pertsonak.
- Enpresa batek bazekien lantokian erre egiten zela, baina ez zuen ezer egiteko asmorik, ez zuelako segurtasunaren kontrako arazotzat jotzen.

- Enpresa batek adierazi zuen bazekiela obretan alkohola kontsumitzen zela, lan-esparruan edari alkoholodunen latak aurkitzen zituztelako.
- Enpresa batek adierazi zuen 45 urtetik gorako langileen % 20k alkohola kontsumitzen zutela eta % 15ek pakete bat erretzen zutela egunean, osasun kolektiboaren zaintzan lortutako datuen arabera. Bestalde, 35 urtetik gorako marihuana-kontsumoaren susmoa zeukan. Ez zuen prebentziozko inolako jarduketarik egiten, nahiz eta, adierazi zuenez, arazo hauek izan: istripuak behin eta berriz, absentismoa, jokabide ezohikoak eta oldarkorrak eta ustez droga-kontsumoarekin lotutako haserrekortasuna.

5.6. Enpresan azken 5 urteetan gertatu diren eta adikzio-arazoekin lotura izan dezaketen gatazka-egoerak, laneko istripuak edo gorabeherak jasorik uztea

Adikzioei egotzitako ondorioak jasan zituztela adierazi zuten enpresak: laneko istripuak (n=2), gorabeherak (n= 3), absentismoa (n=5), oldarkortasuna eta haserrekortasuna (n=2), bat-bateko umore aldaketak (n=3), lapurretak (n=1), ordutegia ez betetzea (n=1), kalitate txarragoko lana (n=4), enpresara sartzeko debekua (n=3).

5.7. Parte-hartzea eta ordezkaritza

50 langile baino gehiago zituzten 24 enpresetatik 20tan (% 83,33tan) baze- goen segurtasun- eta osasun-batzordea. Datu hori prebentzio modalitatearekin gurutzatuta, ikusi zen enpresa horietatik 10ek euren prebentzio-zerbitzua zutela, 2k prebentzio-zerbitzu mankomunatua zutela eta 8k kanpoko prebentzio-zerbitzua zutela. 50 langiletik gora izan eta segurtasun- eta osasun-batzorderik ez zuten 4 enpresetatik bik euren prebentzio-zerbitzua zuten eta beste biek kanpoko prebentzio-zerbitzua zuten prebentzio modalitatea.

Bisitaturako 70 enpresetatik 32k (% 45,71) bazituzten prebentzioko delegatuak. Delegatuak 61 ziren guztira, eta horietatik 58k (% 95) bisitan adierazi zuten prestakuntza orokorra eta espezifikoak jaso zutela laneko arriskuen prebentzioari buruz.

Egindako bisiten % 25,71tan langileen ordezkaria aurrean egon zen; % 60tan ez zen agertu langileen ordezkariarik, eta aztertutako lagineko enpresen % 12,85etan ez zegoen langileen ordezkariarik (enpresek adierazi zuten zaila dela langileen ordezkariak izatea).



Bisiten % 21,42tan prebentzio-zerbitzuko teknikariak agertu ziren enpresaren ekimenez.

5.8 Prebentzio modalitatea

Lagineko enpresek aukeratutako prebentzio modalitatearen banaketa honako hau da:

PREBENTZIO MODALITATEA	ENPRESA KOPURUA	ENPRESEN EHUNEKOA
Kanpoko prebentzio-zerbitzua	55	% 78,57
Prebentzio-zerbitzu propioa	13	% 18,57
Prebentzio-zerbitzu mankomunatua	2	% 2,85
Enpresaburuaren ardurapeko prebentzioa	1	% 1,42

5.9. Laneko arriskuen prebentzioaren alorreko dokumentazioa

Bisita guztietan enpresek arriskuen ebaluazioa eta prebentzioaren plangintza aurkeztu zituzten.

Enpresen % 87,33k agiri bidez frogatu zuten laneko arriskuen prebentziorako prestakuntza ematen zela, bai orokorra, bai lanposturako berariazkoa.

Arrisku psikosozialen ebaluazioari dagokionez, enpresetatik 39k (% 55,71) zeukaten eginda. Ebaluaziorik ez zeukaten enpresek askotariko arrazoiak eman zituzten: batzuek ez omen zekiten legez ebaluazio hori egin behar dela, beste batzuei prebentzio-zerbitzuak esan omen zien ez zela beharrezkoa, eta hirugarren multzo batekoek, egin behar dela jakinik ere, ez zuten egin, ez zutelako ezarri horretarako behar zen aurrekontua.

Prebentzio-zerbitzu propioa zuten enpresetatik % 91k zeukaten eginda arrisku psikosozialen ebaluazioa; prebentzio zerbitzu mankomunatua zuten enpresen kasuan portzentajea % 100 zen, eta kanpoko prebentzio-zerbitzua zuten enpresen kasuan portzentaje hori % 22ra jaisten zen.

Elkarrizketa egin zen unean bi enpresa ebaluazio-prozesuan ari ziren eta beste seik programatuta zeukaten prozesu hori.

5.10. Adikzioei buruzko prestakuntza espezifikoa izatea

Enpresa bakar batean ematen zen adikzioei buruzko prestakuntza espezifikoa. Prestakuntza hori zuzendaritzako pertsona bati eta langileen ordezkari bati eman zitzaien.

6. Ondorioak

Eraikuntzaren sektorea sektore guztiz maskulinizatua da. Gizonek ekoizpen-lanak egiten dituzte, eta emakumeek, gehienbat, administrazioko lanak edo lan teknikoak, eta gizonaek baina kontratu finko gehiago dituzte.

Eraikuntzaren sektoreak tabako- eta alkohol-kontsumoaren arrisku-indizirik handiena du, eta bigarren sektorea da kokaina-kontsumoan eta hirugarrena kalamu-kontsumoan. Datu horiek ikusita, deigarria da enpresen % 4,2k baino garatu ez izana adikzioen prebentzioaren arloko nolabaiteko ekintzaren bat. Hala egin duten kasuetan ere, ekintza horiek ez dira beti adostu langileekin, edota, beste batzuetan, ez dira oinarritzat hartu arrisku psikosozialen ebaluazioaren datuak, ez delako ebaluaziorik egin. Inguruabar horiek asko zailtzen dute prebentzio-neurrien ezarpen egokia.

Enpresa horietan, intoxikazio akutuen aurrean jarduteko protokoloak eta kontsumoak detektatzeko testen erabilera izan dira jarduketa nagusiak, baina ez da lehen mailako eta bigarren mailako prebentzioaren programaziorik izan, ez eta jarduketan eragina baloratzeko adierazlerik ere. Prebentzio-jarduketak egin diren kasuetan, banakakoak izan dira, planteamendu orokorrik gabekoak eta denbora-jarraitutasunik gabekoak.

Enpresen % 93k ez dute adikzioen kontrako prebentzio-jarduerarik aurreikusitako, eta lanean arazoak sortu dituzten kasu gatazkatsuei heltzeko ekintzaren bat garatu dutenean, gogor egiteko eta zehatzeko planteamendua erabili dute. Enpresen % 34k substantziak kontsumitzea eta edukitzea berariaz debekatzen duen prozedura prestatu besterik ez dute egin. Nahiz eta enpresen % 16k adierazi duten badakitela euren langile batzuek kontsumo arazotsuak egiten dituztela, ez dute planteamendu orokorrik egin, aitzitik, unean uneko konponbideak eta egoera batetik bestera guztiz desberdinak eman dituzte, gaixo dagoen pertsonari errehabilitazio-prozesuan babes osoa ematek hasi eta kaleratzerainokoak. Beraz, ez dago uniformetasunik jarduketetan.

Enpresa batzuek esan zuten artean ez zutela garatu adikzioen prebentziorako planik, baina horretarako asmotan zirela, planik ez izateak kalte egin ziezaiokeelako enpresaren irudiari, edo bezeroek eskatzen zutelako, edo konpondu beharreko arazoak detektatu zituztelako.

Gure ingurunean nagusi diren kontsumoak kontuan hartuta, enpresek, oro har, batez ere alkohol- eta kalamu-kontsumoak jotzen dituzte arazotsutzat, eta substantzia horien kontra jokabide zehatzailea izaten dute. Tabakoari dagokionez, ordea, lantokietan erretzea debekatzen duen legeria eskura izan arren, barkaberagoak izaten dira, eta askotan araudia urratzen dute ezer ez eginez edo ohartarazpenen bat egitera mugatuz. Nolanahi ere, gogora ekarri behar da araudia urratzeak zehapenak ekarri ahal dizkiola enpresari.

Substantziarik gabeko adikzioak, berriz, enpresek ez dituzte arazotzat jotzen. Egiten diren jarduketek lanean denborarik ez galtzea dute helburu bakarra, prebentzioaren ikuspegia kontuan hartu gabe.

Beste alde batetik, enpresen % 82k laneko arriskuen gaineko prestakuntza eman bazuten ere, enpresa bakarrak eman zuen adikzioei buruzko berariazko prestakuntza, zuzendaritzako pertsona bati eta prebentzioko delegatu bati eman ere, gainerako langileak kanpoan utzita.

Prebentzioko delegatuek eta prebentzio-zerbitzuko teknikariek parte-hartze urria izan dute inkesta honetan, eta kezkatzekoa da, langile horiek garrantzi handia dutelako enpresetan laneko arriskuei aurrea hartzeko. Prebentzioko delegatuak inkesten % 25,71ra baino ez ziren agertu, enpresak bileraren berri jakinarazi zien arren; eta prebentzio-zerbitzuko teknikariak % 21,42tan baino ez ziren agertu.

Prebentzioaren alorreko dokumentazioari dagokionez, enpresa guztiak zeukaten arriskuen ebaluazioari buruzko dokumentuak eta prebentzio-jarduereen plangintzari buruzkoak. Arrisku psikosozialen ebaluazioa bakarrik kontuan hartzen denean, ordea, portzentajea % 55,71ra jaisten da. Datu hori sakonago aztertuta, ikusi da enpresaren prebentzio modalitateak baduela lotura arrisku psikosozialen ebaluazioa edukitzearekin. Zerbitzu mankomunatuak dituzten enpresa guztiak zeukaten ebaluazio horren dokumentua; prebentzio-zerbitzua propioa duten enpresetatik % 91k zeukaten, eta kanpoko prebentzio-zerbitzua duten enpresetatik % 22k. Ez dirudi enpresaren tamaina faktore erabakigarria denik arrisku psikosozialen ebaluazioa eginda edukitzeko, zeren eta, 30 langile baino gutxiagoko enpresen portzentajerik handiena ebaluaziorik gabeko enpresetan izan arren, ikusi baitzen, halaber, 100 langile baino gehiagoko lau enpresak ez zutela ebaluaziorik.

Arrisku psikosozialen ebaluaziorik ez izatearen arrazoiak ikertzean enpresek hiru motatako argudioak eman zituzten. Argudioetako baten arabera, preben-



tzio-zerbitzuak adierazi zien ez zutela ebaluazioa egin beharrik. Beste baten arabera, ez zekiten ebaluazioa egin behar dela. Eta hirugarrenaren arabera, bazekiten ebaluazioa egin behar dela, baina, zuten aurrekontuarekin, beste jarduera batzuk egitea lehenetsi zuten ebaluazio hori egin ordez. Arrisku psikosozialen ebaluazioa egitea legezko betebeharra da. Hura ez egitea legeratze bat da eta lan-arloko agintaritzak zehatu egin dezake.

OSALANek adikzioei heltzeko egiten duen proposamena hauxe da: adikzioen prebentziorako plan bat ezartzea Euskal Autonomia Erkidegoko enpresetan, batez ere eraikuntzan eta beste sektore batzuetan, kontsumoen prebalentzia eta laneko istripuen arrisku garrantzitsuak dituzten horietan. Horretarako, «Enpresetan drogamendekotasunen prebentziorako planak ezartzeko gidaliburua» (2014) erabiltzea proposatzen da. Plan hori enpresaren prebentzio-dokumentu bakarrean jaso behar da.

7. Lanerako proposamena

Emaitzak kontuan izanda, hauek lirateke etorkizuneko jarduketa-ildoak OSALANen aldetik:

- Aholkularitza-, prestakuntza- eta informazio-ekintzak egitea, enpresetan adikzioei lotuta dauden arriskuei buruz.
- Adikzioen prebentziorako planak ezartzeko OSALANek jada garatu duen materiala hedatzeko kanpainak.
- Adikzioei buruzko berariazko prestakuntza eskaintzea adikzioen prebentziorako plana garatzeaz arduratzen diren pertsoneri eta plantilla osoari, erakundeetan adikzioen arazoa egokiro kudeatu ahal izateko.

8. Bibliografía

1. Organización Internacional del Trabajo. SOLVE: integrando la promoción de la salud a las políticas de SST en el lugar de trabajo: guía del formador. Ginebra: Oficina Internacional del Trabajo; 2012
2. Organización Mundial de la Salud. Estrategia mundial para reducir el uso nocivo del alcohol. Ginebra: OMS; 2010
3. Encuesta sobre adicciones en Euskadi 2017: monográfico sobre el consumo de bebidas alcohólicas. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila = Gobierno Vasco. Departamento de Salud; 2018. p. 75
4. EDIS, Equipo de Investigación sociológica. La incidencia de las drogas en el medio laboral de la comunidad de Madrid 2006. Madrid: Agencia Antidroga de la Comunidad de Madrid; 2008.
5. Encuesta sobre alcohol y otras drogas en España, EDADES, 2019. Madrid: Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad; 2017
6. Encuesta 2019/2020 sobre consumo de sustancias psicoactivas en el ámbito laboral en España. Madrid Ministerio de Sanidad 2021
7. Becker, J. The alcohol hangover. *Ann Intern Med.* 2001 Mar 20;134(6):533-534
8. García-Díaz V, Fernández-Feito A, Arias L, Lana A. Consumo de tabaco y alcohol según la jornada laboral en España. *Gaceta Sanitaria.* 2015;29(5):364-369.
9. Organización Internacional del Trabajo. Tratamiento de cuestiones relacionadas con el alcohol y las drogas en el lugar de trabajo. Ginebra: Oficina Internacional del Trabajo; 1996
10. Martín Díez MJ, Robertson Sangrador M, Zubia Ortiz de Guinea AR, De la Peña Loroño MN. Guía para la implantación de un plan de prevención de las adicciones en la empresa. Gurutzeta-Barakaldo: OSALAN; 2014.

11. Organización Mundial de la Salud. Estrategias para reducir el uso nocivo del alcohol: proyecto de estrategia mundial: informe de la Secretaría. 126.^a reunión del Consejo Ejecutivo EB126/13. Ginebra: OMS; 2009
12. Instituto Nacional de Seguridad y Salud en el Trabajo, O.A., M.P. Ocupación, actividad económica y mortalidad por cáncer en España. Madrid: INSST; 2019
13. Observatorio Español de las Drogas y las Adicciones (OEDA). Informe 2019. Alcohol, tabaco y drogas ilegales en España. Madrid: Ministerio de Sanidad, Consumo y Bienestar Social. Centro de Publicaciones; 2020
14. Observatorio Europeo de las Drogas y las Toxicomanías. Lugares de trabajo y drogas: respuestas sanitarias y sociales. Lisboa: OEDT; 2022
15. Ochoa E, Mangado. Consumo de alcohol y otras drogas en el medio laboral. Revista medicina y seguridad en el trabajo Madrid 2008, Vol. 54. 213.

2.- ENPRESAREN DATUAK																	
ENPRESA																	
Bisita jaso duen LANTOKIA																	
Udalerría / Municipio:		Posta-kodea / Código postal: <table border="1" style="display: inline-table; vertical-align: middle;"> <tr> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> </tr> </table>															
Posta elektronikoa / Correo electrónico:		Telefonoa / Teléfono: <table border="1" style="display: inline-table; vertical-align: middle;"> <tr> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> </tr> </table>															
Enpresaren ordezkaria																	
Bisitan bertan egon diren prebentzioko delegatuak																	
- - - -																	
Sozietatearen izena / Razón Social																	
I.F.K. / N.I.F.:	Langile kopurua / Nº de personas trabajadoras LT <input style="width: 40px;" type="text"/> Enpresa <input style="width: 40px;" type="text"/>	Sektore ekonomikoa EJSN: 41 <input type="checkbox"/> 42 <input type="checkbox"/> 43 <input type="checkbox"/>															
Sozietatearen helbidea / Domicilio social:																	
Udalerría / Municipio:		Posta-kodea / Código postal:															
Posta elektronikoa / Correo electrónico:		Telefonoa / Teléfono:															
Lantokien kopurua. <input style="width: 40px;" type="text"/>	Helbideak																
-	<table border="1" style="display: inline-table; vertical-align: middle;"> <tr> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> </tr> <tr> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> </tr> <tr> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> </tr> </table>																
-																	
-																	
Lan-istripu eta lanbide-gaixotasunetarako erakunde kudeatzailea (EK) edo laguntzailea (EL):																	



3.- PREBENTZIOA ANTOLATZEKO MODALITATEA		
<input type="checkbox"/> Enpresaburuak bere gain hartuta	LAPeko prestakuntza <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> B <input type="checkbox"/> I <input type="checkbox"/> S <input type="checkbox"/> EZ	
<input type="checkbox"/> Izendatutako langileak	LAPeko prestakuntza <input type="checkbox"/> BAI KOP. <input type="checkbox"/> B <input type="checkbox"/> I <input type="checkbox"/> S <input type="checkbox"/> EZ KOP.	
<input type="checkbox"/> Prebentzio-zerbitzu propioa (PZP) <input type="checkbox"/> Mankomunatua (PZM) Espezialitateak: <input type="checkbox"/> Segurtasuna <input type="checkbox"/> Higienea <input type="checkbox"/> Ergonomia eta Psikosoziologia <input type="checkbox"/> Medikuntza W		
<input type="checkbox"/> Kanpoko prebentzio-zerbitzua <input type="checkbox"/> Kanpoko prebentzio-zerbitzua: Izena Izena: <input type="checkbox"/> Kanpoko prebentzio-zerbitzua: Izena Espezialitateak: <input type="checkbox"/> Segurtasuna <input type="checkbox"/> Higienea <input type="checkbox"/> Ergonomia eta Psikosoziologia <input type="checkbox"/> Medikuntza W		
<input type="checkbox"/> Segurtasun- eta osasun-batzordea	Enpresaren ordezkarien kopurua:	Langileen ordezkarien kopurua:
<input type="checkbox"/> Prebentzioko delegatuak	Kop.:	LAPeko prestakuntza <input type="checkbox"/> BAI KOP. <input type="checkbox"/> EZ KOP.

4.- PLANTILLAREN EZAUGARRIAK		
Lantokiko langileen kopurua, guztira <input type="text"/>		
Emakumeak, guztira <input type="text"/>	Gizonak, guztira <input type="text"/>	
Langile finkoen kopurua <input type="text"/>	Bitarteko edo behin-behineko langileen kopurua <input type="text"/>	
Emakumeak, guztira <input type="text"/>	Gizonak, guztira <input type="text"/>	Emakumeak, guztira <input type="text"/>
Gizonak, guztira <input type="text"/>		Gizonak, guztira <input type="text"/>
Ba al dago langile atzerritarrik?	E, guztira <input type="text"/>	G, guztira <input type="text"/>
PLANTILLAREN ADINA		
Adina	Emakumeak	Gizonak
16 - 24 urte		
25 - 34 urte		
35 - 44 urte		
45 - 54 urte		
55 - 64 urte		

5.- LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN ALORREKO DOKUMENTAZIOA	
Arriskuen ebaluazioa (AE) egin dute <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ <small>1. GOMENDIOA</small>	
Arriskuen ebaluazioak jasotzen du faktore psikosozialei buruzko atalik <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ	
Prebentzio-jardueraren plangintza egin dute arriskuen ebaluazioarekin lotuta <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ <small>2. GOMENDIOA</small>	
Langileek prestakuntza jaso dute <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ <small>3. GOMENDIOA</small>	
Zer prestakuntza mota <input type="checkbox"/> Orokorra <input type="checkbox"/> Espezifikoa <input type="checkbox"/> Biak	
Informazioa/Prestakuntza eman zaie langile berriei beren lanpostuko arriskuei buruz <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ <small>4. GOMENDIOA</small>	
6.- EBALUAZIOA	
Arriskuen ebaluazioan arrisku hauek jaso dira:	
<ul style="list-style-type: none"> • Ba al dago 8 orduko lanaldirik? :.... • Txandarik egiten al da? <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ Baiezkoan <input type="checkbox"/> Goizez <input type="checkbox"/> Arratsaldez <input type="checkbox"/> Gaeuz • Ba al dago gaueko txanda finkorik? <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ • Ba al dago helburuengatik hobaririk lanposturen batean? * <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ 	
*Destajuan ari den langilearen ordainsaria produkzioaren mende dago, egindako atazaren arabera edo landutako objektuen aintzen baitzaio.	
7.- ARRISKU PSIKOSOZIALEN EBALUAZIOA (APE)	
Eginda: <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ <small>5. GOMENDIOA</small>	Nork egin duen:
<input type="checkbox"/> Enpresaburuak	<input type="checkbox"/> Prebentzio-zerbitzu propioak <input type="checkbox"/> Beste batzuk (zehaztu)
<input type="checkbox"/> Izendatutako langileek	<input type="checkbox"/> Kanpoko prebentzio-zerbitzuak
.....	
Noiz egin zen hasierako APEa?	Data:
Egin al da aldizkako kontrolik/ebaluaziorik? <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ	Eguna:
Ebaluaziorako erabilitako metodoa	
<ul style="list-style-type: none"> • APEan ba al dago lanposturen bat non zereginak beti berdintzat edo monotonotzat jotzen baitira? ** <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ 	
**Lan monotonoa: ataza errepikatutak egitea jarraian, ia esfortzurik egin gabe eta, halaber, ekimen pertsonalik izan gabe	

**8.- ADIKZIOAK**

Enpresan ba al dago adikzioen prebentziorako planik (APP)? Bai Ez **6. GOMENDIOA**

APPa izanez gero, langileen ordezkariekin adostu eta itundu al da? Bai Ez **7. GOMENDIOA**

Ezezkoan:

- Enpresak ba al du edo izan al du plan hori garatzeko planteamendurik? Bai Ez
- Langileek ba al dute edo izan al dute plan hori garatzeko planteamendurik? Bai Ez
- Zerk eragin du planteamendu hori?
- Aurretik izandako arazo batek
- Ikuskapen-jarduketa batek
- Beste arrazoi batzuek (zehaztu)

Ba al dago adikzioen inguruko inolako ekintzarik eta/edo prozedurarik? Bai Ez

Zein?

- Intoxikazio akutuko egoeran jarduteko protokoloa Bai Ez **8. GOMENDIOA**
- Lantokietan substantziak edukitzeko eta kontsumitzeko berariazko debekua
- Langile batek adikzioaren bat duela susmatzen denean jarduteko protokoloa
- Beste batzuk.....

Baldintza arriskutsu hauek ebaluatzen ari dira lan-ingurunean:

- Jakitun dira badela adikzio-arazoak dituen langilerik BAI EZ
- Zenbat langile?.....
- Lanaldian alkohola edota beste droga batzuk kontsumitu daitezke BAI EZ

Zure ustez, edo zuk dakizula, enpresan **azken 5 urteetan** gertatutako gatazka-egoera, laneko istripu edo en batek zerikusia izan dezake adikzio-arazoekin? Bai Ez

- Zenbat istripuren berri jakin duzue? Guztira Emakumeak Gizonak
- Zenbat **gorabeheraren** berri jakin duzue? Guztira Emakumeak Gizonak
- Nola ekin zaio egoerari?

. Zehapena jarri da

. Langileak ez du ondoriorik jasan

. Segurtasun- eta osasun-batzordean aztertu da

. Beste batzuk (zehaztu)

Arriskuduntzat jotzen dituzuen pertsonen izan al dute sintoma hauetakoren bat? **azken 5 urteetan**?

- Istripuak behin eta berriz BAI EZ
- Absentismoa BAI EZ
- Oldarkotasun, haserrekortasun edo intolerantzia gero eta handiagoak BAI EZ
- Bat-bateko umore aldaketak BAI EZ
- Lapurretak BAI EZ
- Lankideei sarritan dirua eskatzea BAI EZ
- Ordua baino lehenago lanean astea, edo ordua baino geroago ateratzea BAI EZ
- Kalitate txarragoko lana, edo erroreak lanean BAI EZ
- Arduradunen batek ez dio utzi lanpostura joaten, lana behar bezala egiteko moduan ez zegoela iritzita

9- Adikzioei buruzko prestakuntza eta informazioa

Eman al da adikzioei buruzko prestakuntza espezifikorik?

- Zuzendaritzari BAI EZ
- Langileei BAI EZ

10.- Enpresarentzako gomendioak	
Egin al da gomendiorik?	
<ul style="list-style-type: none"> • <input type="checkbox"/> BAI Zein? 1 <input type="checkbox"/> 2 <input type="checkbox"/> 3 <input type="checkbox"/> 4 <input type="checkbox"/> 5 <input type="checkbox"/> 6 <input type="checkbox"/> 7 <input type="checkbox"/> 8 <input type="checkbox"/> 9 <input type="checkbox"/> • <input type="checkbox"/> EZ 	
11.- OHARRAK	
	GOMENDIOAK
1.- Ez da agiri bidez justifikatu arriskuen ebaluazioa egin izana.	Gogora ekarri ebaluazioa nahitaez eduki behar dela, LAPLren 16.2 artikulua arabera. Enpresaburuak bere zerbitzuean dauden langileen segurtasuna eta osasuna babestu beharko ditu, lanarekin zerikusia duten alde guztietan (LAPLren 14.2 artikulua). Adieraziko zaio kanpaina honen helburua aholkatzea dela, baina lan-ikuskaritzak ebaluazioa eskatu eta hura ez edukitzeak zehapena ekarriko lukeela.
2.- Ez da agiri bidez justifikatu prebentzioaren plangintza.	Gogora ekarri legezko betebeharra dela prebentzioaren plangintza egitea detektatutako arriskuak ezabatu edo arintzeko, PZEn 8. artikulua arabera.
3.- Ez da agiri bidez justifikatu plantillarentzako prestakuntza.	Gogora ekarri prestakuntza hori nahitaez eman behar dela, LAPLren 19. artikulua arabera. Eman badu, ohartarazi dokumentu bidez justifikatu ahal izateko moduan egon behar duela.
4.- Ez da agiri bidez justifikatu langile berrientzako prestakuntza.	Gogora ekarri prestakuntza hori nahitaez eman behar dela, LAPLren 19.1 artikulua arabera. Eman badu, ohartarazi dokumentu bidez justifikatu ahal izateko moduan egon behar duela.
5.- Ez da agiri bidez justifikatu arrisku psikosozialen ebaluazioa egin izana.	Gogora ekarri hura egiteko legezko betebeharra. Izan ere, enpresaburuak langileen segurtasuna eta osasuna babestu behar ditu lanarekin zerikusia duten alde guztietan (LAPLren 14.2 artikulua).
6.- Ez da agiri bidez justifikatu adikzioen prebentziorako plana izatea.	Gogora ekarri legeak hura egitea gomendatzen duela, EJren Adikzioei buruzko Legearen 20.a.2 artikulua arabera. Osasun-protokoloak eta -gidak egitea; adikzioak behatzeko, garaiz antzemateko eta prebenitzeko programak abian jartzea, eta inguruabar horrek eragiten dien langileei laguntzea. Laguntza hori enpresaburuak emango dio langileari, negozioazio kolektiboan eta enpresa-erakundeen eta sindikatuen arteko akordioetan jasotzen denaren arabera. Gomendatzea kontsultatu dadila Enpresetan drogamendekotasunen prebentziorako planak ezartzeko gidaliburua, OSALANek egina. https://www.osalan.euskadi.eus/liburua/enpresetan-drogamendekotasunen-prebentziorako-planak-ezartzeko-gidaliburua/webosa00-contsec/eu/ Gomendatzen da adikzioak barne-erregelamenduan txertatzea.
7.- Ez da agiri bidez justifikatu prebentziorako delegatuek parte hartu dutenik edo kontsulta egin zaenik adikzioen prebentziorako plana prestatzean	LAPLren 34.1 artikulua. Gogora ekarri langileek eskubidea dutela laneko prebentzioarekin zerikusia duten enpresako kontuetan parte hartzeko. Enpresaburuak langileei kontsulta egin behar die enpresako prebentzioaren kudeaketari dagozkion erabakiak hartzerakoan.
8.- Ez dago intoxikazio akutuko kasuetan jarduteko protokolorik.	Gogora ekarri legeak hura egitea gomendatzen duela, EJren Adikzioei buruzko Legearen 20.b.2 artikulua arabera. b.2. Jarduera-protokolo bat garatzea, langilearentzat edo beste pertsona batzuentzat arrisku larria edo berehalakoa badago. Gomendatzea OSALANen gidaliburuan begiratu dadila nola jardun lanpostuko intoxikazio akutuko kasuetan. https://www.osalan.euskadi.eus/liburua/enpresetan-drogamendekotasunen-prebentziorako-planak-ezartzeko-gidaliburua/webosa00-contsec/eu/ Gomendatzea barne-dokumentu bat egin dadila eta bertan jaso daitezela intoxikazioen ondorioz gerta daitezkeen kontingentzia guztiak (langileei lanpostutik ateratzea, lagun egitea eta abar).
OSALANeko teknikaria Data	Bisitaturako enpresa Data
Sin:.....	Sin:.....

**Bisita egin ondoren, hauek dira hobetu beharreko puntuak (biribil batez inguratuta daude):**

10.- Enpresarentzako gomendioak	
Egin al da gomendiorik? <ul style="list-style-type: none"> • <input type="checkbox"/> BAI Zein? 1 <input type="checkbox"/> 2 <input type="checkbox"/> 3 <input type="checkbox"/> 4 <input type="checkbox"/> 5 <input type="checkbox"/> 6 <input type="checkbox"/> 7 <input type="checkbox"/> 8 <input type="checkbox"/> 9 <input type="checkbox"/> • <input type="checkbox"/> EZ • 	
11.- OHARRAK	
	GOMENDIOAK
1.- Ez da agiri bidez justifikatu arriskuen ebaluazioa egin izana.	Gogora ekarri ebaluazioa nahitaez eduki behar dela, LAPLren 16.2 artikuluaen arabera. Enpresaburuak bere zerbitzuplean dauden langileen segurtasuna eta osasuna babestu beharko ditu, lanarekin zerikusia duten alde guztietan (LAPLren 14.2 artikulua). Adieraziko zaio kanpaina honen helburua aholkatzea dela, baina lan-ikuskaritzak ebaluazioa eskatu eta hura ez edukitzeak zehapena ekarriko lukeela.
2.- Ez da agiri bidez justifikatu prebentzioaren plangintza.	Gogora ekarri legezko betebeharra dela prebentzioaren plangintza egitea detektatutako arriskuak ezabatu edo arintzeko, PZEn 8. artikuluaen arabera.
3.- Ez da agiri bidez justifikatu plantillarentzako prestakuntza.	Gogora ekarri prestakuntza hori nahitaez eman behar dela, LAPLren 19. artikuluaen arabera. Eman badu, ohartarazi dokumentu bidez justifikatu ahal izateko moduan egon behar duela.
4.- Ez da agiri bidez justifikatu langile berrientzako prestakuntza.	Gogora ekarri prestakuntza hori nahitaez eman behar dela, LAPLren 19.1 artikuluaen arabera. Eman badu, ohartarazi dokumentu bidez justifikatu ahal izateko moduan egon behar duela.
5.- Ez da agiri bidez justifikatu arrisku psikosozialen ebaluazioa egin izana.	Gogora ekarri hura egiteko legezko betebeharra. Izan ere, enpresaburuak langileen segurtasuna eta osasuna babestu behar ditu lanarekin zerikusia duten alde guztietan (LAPLren 14.2 artikulua).
6.- Ez da agiri bidez justifikatu adikzioen prebentziorako plana izatea.	Gogora ekarri legeak hura egitea gomendatzen duela, Elren Adikzioei buruzko Legearen 20.a.2 artikuluaen arabera. Osasun-protokoloak eta -gidak egitea; adikzioak behatzeko, garaiz antzemateko eta prebenitzeko programak abian jartzea, eta inguruabar horrek eragiten dien langileei laguntzea. Laguntza hori enpresaburuak emango dio langileari, negozioziko kolektiboan eta enpresa-erakundeen eta sindikatuen arteko akordioetan jasotzen denaren arabera. Gomendatzea kontsultatu dadila Enpresetan drogamendekotasunen prebentziorako planak ezartzeko gidaliburua, OSALANek egina https://www.osalan.euskadi.eus/liburua/enpresetan-drogamendekotasunen-prebentziorako-planak-ezartzeko-gidaliburua/webosa00-contsec/eu/ Gomendatzen da adikzioak barne-erregelamenduan txertatzea.
7.- Ez da agiri bidez justifikatu prebentzioko delegatuek parte hartu dutenik edo kontsulta egin zaienik adikzioen prebentziorako plana prestatzean	LAPLren 34.1 artikulua. Gogora ekarri langileek eskubidea dutela laneko prebentzioarekin zerikusia duten enpresako kontuetan parte hartzeko. Enpresaburuak langileei kontsulta egin behar die enpresako prebentzioaren kudeaketari dagozkion erabakiak hartzerakoan.
8.- Ez dago intoxikazio akutuko kasuetan jarduteko protokolorik.	Gogora ekarri legeak hura egitea gomendatzen duela, Elren Adikzioei buruzko Legearen 20.b.2 artikuluaen arabera. b.2. Jarduera-protokolo bat garatzea, langilearentzat edo beste pertsona batzuentzat arrisku larria edo berehalakoa badago. Gomendatzea OSALANen gidaliburuan begiratu dadila nola jardun lanpostuko intoxikazio akutuko kasuetan. https://www.osalan.euskadi.eus/liburua/enpresetan-drogamendekotasunen-prebentziorako-planak-ezartzeko-gidaliburua/webosa00-contsec/eu/ Gomendatzea barne-dokumentu bat egin dadila eta bertan jaso daitezela intoxikazioen ondorioz gerta daitezkeen kontingentzia guztiak (langilea lanpostutik ateratzea, lagun egitea eta abar).
OSALANeko teknikaria Data	Bisitaturako enpresa Data
Sin.:.....	Sin.:.....

ENPRESARENTZAKO ALEA



OSALAN

Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de
Seguridad y Salud Laborales

Erakunde Eskualdeko Autonomia Aduna
Organismo Vasco de Gobierno del



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ZERBITZU ZENTRALAK

Dinamita Bidea, z.g. (Basatxu Mendia)
48903 Barakaldo (Bizkaia)
Tel. +34 944 032 190

ARABAKO LURRALDE ZENTROA

José Atxotegi, 1
01009 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel. +34 944 032 190

BIZKAIKO LURRALDE ZENTROA

Dinamita Bidea, z.g. (Basatxu Mendia)
48903 Barakaldo (Bizkaia)
Tel. +34 944 032 190

GIPUZKOAKO LURRALDE ZENTROA

Maldatxo Bidea, z.g.
20012 Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa)
Tel. +34 944 032 190

www.osalan.euskadi.eus

